

**Langileak: aldi baterako ordezkapenak**  
**EUSKARA ETA KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA**

**OINARRIAK**

**UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO EUSKARA ETA KOMUNIKAZIO TEKNIKARIAREN**  
**HUTSUNEA ALDI BATERAKO HORNIKUNTZA ETA HAUTAKETA**

**1.- Kontratazioaren lege oinarria eta justifikazioa**

Hautaketa-prozedurari dagokionez, bitarteko izaera duenez izendapenak, era arin eta azkar batean gauzatu behar da, 11/2022 legeak, 77.1 artikuluan, aurreikusi duenez, 2025eko Lanpostu zerrendan ageri den lanpostu hau bete gabe dago 2024ko azaro amaieraz geroztik eta hutsune hori bete beharra dago.

**2.- Hautagaiek bete beharreko ezinbesteko baldintzak**

- Administrazio publikoan lan egiteko baldintza orokorrak eskatuko dira.
- Ikasketak:

500	Lizentziatura, ingeniari, arkitektura, edo baliokidea
501	Zuzenbideko, Zientzia Politikoetako, Ekonomiako edo Enpresa Zientzietako lizentziatura, merkataritzako intendente edo jardulariaren titulua
511	Filosofian lizentziatura edo baliokide den gradu titulua
515	Euskal Filologian lizentziatura edo baliokide den gradu titulua
516	Komunikazio Zientzietan lizentziatura edo baliokide den gradu titulua
535	Pedagogian lizentziatura edo baliokide den gradu titulua
536	Psikologian lizentziatura edo baliokide den gradu titulua

- Euskara: 3. hizkuntz eskakizuna edo C1 egiaztagiria, gutxienez, egiaztatuta.
- Gutxienez urtebeteko lan eskarmentua izatea bereziki komunikazio gaietan

**4.- Bete beharreko lanpostuaren eta eskaintzaren ezaugarriak:**

**Lanpostua:** Euskara komunikazio teknikaria.

**Eskala:** Administrazio Orokorra

**Sailkapen taldea:** A2

**Destino osagarria:** 22

**Osagarri espezifiko:** 1.428,57.-euro/hilero

**Ordainsaria:** 3.302.- euro/ hilero; urtero ( 14 ordainketa): 46.229,42.-euro

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 7 ordu eta 7 ordu t'erdian artean; sarrera 7:30-9:00 bitartean eta irteera 15:00-16:30 malgutasunez.

**Lanaldia:** %100

**Eskaintzen den izendapena:** Bitarteko funtzionario

**Iraupena:** 2027ko maiatzaren amaiera arte, gutxienez.

**Probaldia:** hautatuak 3 hilabeteko probaldia gainditu beharko du (11/2022 legearen 77.2 artikuluari jarraiki), ezinbestekoa izanik eginkizunetara egokitzea parametro hauen arabera: egindako lanetan azaldutako eraginkortasun profesionala eta, bereziki, zerbitzuarekiko jarrera; arduradunekiko harremanak eta ardura; lankidetzak eta elkarlana; errendimendua eta erantzukizuna; egoerez jabetzea, emozio-oreka eta moldagarritasuna.

Horiek guztiak, 11/2022 legearen 76.7 artikulua ezarritako moduan, zehatz-mehatz deskribatu eta nabarmen behagarriak diren jokabideekin alderatuta balioetsiko ditu hautaketa-organo teknikoak.

## **5.- Eginkizun nagusiak:**

Lehendakaritzaren 2024ko abenduaren 9ko B24/0169 Ebazpen bidez onartutakoak. Alegia, jarraian adierazitakoak.

### **Euskara**

- Plangintza (erakunde barrura eta kanpora begira).
  - Urteko plangintza, antolaketa eta jarraipena.
  - Aurrekontuaren gastuak proposatu Lehendakariari eta exekuzioaren jarraipena egin.
  - Gastuen eta fakturen oniritzia eta kudeaketa.
- Lan hizkuntza gisa sustatu (erakundeko langileei):
  - Hizkuntza eskakizunak: ikastaroen/azterketen deialdiak eta hautaketa prozesuak.
  - Euskararen inguruko irizpideak eta aholkuak eman (aurkezpenak).
  - Euskara planak burutu eta landu
  - Kontratazio publikoan hizkuntza klausulak txertatu.
  - Euskararen aldagaia, hizkuntza irizpideak eta euskara plana, erakundeko arlo guztietan betetzen dela bermatu.
- Euskara zerbitzua, eskualdeko herritarrentzat udalekin elkarlanean egiten diren ekimenak.
  - Kirolean euskara sustatzeko ekimenak.
  - Arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko ekimenak (aisialdiko begiraleentzako ikastaroak, enpresentzako ikastaroak...)
  - Mintzalagun programa.
  - Autoikaskuntzako proiektua Zarauzko Udal Euskaltegia.
  - Hiztunak aktibatze lanketa (Euskaraldia, etab).
  - Turismoan euskara sustatzeko lanketa (Ongi etorri euskararen herrira ekimena, esaterako).
  - Eskualdeko euskara teknikarien bilerak/ekimenak koordinatu: deialdiak egin, aktak, eskaerak.
  - Erakundeak eskualde mailan dituen ekimenen jarraipena (Euskaraldia, Mintzalagun, Ongi etorri Euskararen Herrira...)

## Komunikazioa

- Urteko komunikazio plangintza.
- Urtearen antolaketa.
- Erakundeko sail guztietako ekimenak iragartzeko ohiko lanak: komunikabideekin harremana, prentsa oharrak landu, hedabideei komunikatu. webgunea (edukia, atalak, hobekuntzak eta zuzenketak), euskarri grafikoak, ikus-entzunezkoak, sare sozialak.
- Udal Elkarteko erakundearekin elkarlanean ekimenak antolatzen dituzten erakundeen komunikazio irizpideak aztertu eta bateratu.
- Aurrekontuaren gastuak proposatu Lehendakariari eta exekuzioaren jarraipena egin

## Orokorrak

- Langileei, zerbitzu hartzaileei arreta eman.
- Zerbitzua eta lan-prozesuak etengabe hobetzen lagundu.
- Bere eginkizunak direla eta, beharrezko diren lan bilera, jardunaldi, ikastaro, mintegi eta antzekoetara joan.
- Lehenago deskribatutako eginkizunez gainera, bere gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak gauzatu.

## 6.- Hautaketa prozedura

### 6.1.- Legezko oinarriak eta baldintzak

11/2022 legearen 77.1 artikulua jasotako printzipio hauek bermatuko dira hautaketa honetan: berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna, publikotasuna eta lehia askea.

11/2022 legearen 79.2 artikuluari jarraituz honakoak bete dira hautaketa hau bideratzeko:

- a) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna, independentzia eta diskrezionalitate teknikoa.
- b) Hizkuntza eskakizuna
- c) Izangaien gaitasuna eta egokitasuna neurtzeko tresnen pertinentzia.
- d) Hautaketa-prozesuetako edukien eta deitutako plazetan bete beharreko zereginen arteko adostasuna.
- e) Hautaketa-prozesuen bizkortasuna
- f) Hautaketa-prozesuan hizkuntza ofizialetatik edozein erabili ahal izateko bermea.
- g) Enplegu publikora iristeko berdintasun-printzipioa.
- h) Gainerako izangaiek dituzten baldintza beretan parte hartzea desgaitasunen bat duten pertsonak.

11/2022 legearen 77.5 artikuluari helduz, LANBIDE- Euskal enplegu zerbitzuan argitaratuko da lan eskaintza honen iragarkia.

Baldintzak betetzen dituen pertsona orok izen eman dezake eskaintza honetan, LANBIDE bidez. Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:LANBIDEn CV ( NAN, titulazioa, euskararen ziurtagiria, eta lan esperientzia egiaztatzen dituen).



## 6.2.-Hautaketa metodoa:

11/2022 legearen 80.2.artikuluko a), g), h) eta k) atalak aintzat izanik burutuko da hautaketa.

Lehenik, ahozko proba edo elkarrizketa bidez gauzatu da. Grabatua izango da. 30 minutuko iraupena izango du gehienez.

Ahozko proba honek bi zati nagusi izango ditu. Euskaraz erantzun edo azaldu beharko du hautagaiak,

- o Lehen zatian, 10 minutuz hautagaiak bere burua aurkeztu beharko du, eta bere ikasketa eta lan ibilbidea zein izan den adierazi beharko du eta zein lantokitan eta zein zeregin egin dituen deskribatuko du.
- o Biugarren zatian, 20 minutuz, gehienez, ahozko ezagutza-proba burutuko da. Hautaketa-organu-teknikoak zenbait gai galdetuko dizkio, oinarri honetako eranskinean ageri den gaitegiari buruz.

Hautaketa-organo teknikoak, argibideak eskatzeko edota zalantzak argitzeko galderak euskaraz egingo ditu.

Elkarrizketa egiteko eguna eta ordua emailaz jakinaraziko zaie, baldintzak betetzen dituzten hautagaiei.

Bigarrenik, lan esperientzia eta euskara zein komunikazio arloan egindako Master eta graduondoko ikastaroak baloratuko dira.

## 6.3.-Balorazio-irizpideak (100 puntu, gehienez).

1.- Elkarrizketak 50 puntuko balioa izango du, eta hautagaiaren jarrera, heldutasuna, ezagutza eta esperientzia baloratuko da ondorengo irizpideen arabera:

.- Bere burua aurkeztean erakutsitako koherentzia eta ordena, eta bere ikasketa-ibilbidea eta lan-ibilbidea argi adierazteko gaitasuna. (10 puntu)

.-Ahozko ezagutza-probako galderak ondo erantzutea (40 puntu)

2.- Merezimenduek 50 puntuko balioa izango dute:

.- Lan eskarmentua ( 35 puntu)

.- Euskara zein komunikazio arloan egindako Master eta graduondokoak(15 puntu).

## 6.4.-Hautaketa-mahai edo organo teknikoa

Elkarrizketan parte hartuko dute, Udal Elkarteko enplegu-teknikariak eta Idazkari-kontuhartzaileak, eskualdeko euskara teknikari batek edota komunikazio gaietako funtzionario-aditu batek.

11/2022 legearen 81.10 artikulua arabera, epaimahaiaren edo hautaketa-organo teknikoaren erabakia loteslea izango da izendapenak egiteko eskumena duen organoarentzat, hots, Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakariarentzat.

6.5.-Emaizak: hurrenkera eta lan-poltsa

Aurkeztutako hautagaien artean, hurrenkera bat jarriko da eta lan-poltsa bat eratuko da, euskara-komunikazio gaietarako aholkularitza lanak egiteko, interesa azal dezaketen beste enpresa edota Administrazio publikoentzat eskuragai egongo dena, hautagaiak horretarako berariaz baimena emanaz gero.

6.6.- Gutxi gora-beherako egutegia:


- Izen emateko epea: 5 lan egun, LANBIDEn iragarkia jarriz geroztik,
- Izen emateko modua: LANBIDE bidez
- Elkarriketa egiteko epea: apirilaren lehen hamabostaldian zehar. Baldintzak bete dituen hautagai bakoitzari egun eta ordu zehatz baterako deialdia egingo zaio.
- Emaizak argitaratzeko epea: apirilaren bigarren hamabostaldian zehar.
- Emaizak argitaratzeko modua: Urola Kostako Udal Elkartearen web orrian.

2024ko martxoan.

**ERANSKINA: GAI ZERRENDA**

Ahozko ezagutza-proban honako gaiei buruzko galderak egingo dira.

- 1.- Komunikazio arloko gaiak
- 2.- Euskararen normalizazio araudia
- 3.- Urola Kostako Udal Elkartearen ezaugarri nagusiak
- 4.-Administrazio publikoen prozedura administratibo erkidearen 39/2015 legearen alderdi esanguratsuenak
- 5.- Sektore publikoko kontratuen 9/2017 legearen oinarritzko ezagutzak.
- 6.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorraren funtsezko kontzeptuak.

<b>Sinatzailea Firmante</b>	LEHENDAKARIA	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4L1ZV.CmWf">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4L1ZV.CmWf</a>	
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu / <i>Este documento se ha firmado electrónicamente, para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR</i>		